

/ Nabarmentzekoak

- > Esklusio-egoerak prebenitzeko eta artatzeko gizarte diru-laguntzak (2. or.)
- > Hip-Hop "Urban Show Basque Crew Combination", Muxikebarrin (3. or.)
- > Bi saio kultur elkarreentzako ohiko diru-laguntzen deialdia azaltzeko (3. or.)

Herritarrek edukiontzi marroia erabiltzera eta materia organikoa birziklatzera animatzeko kanpaina (4. or.)



Kontzertua. Maiatzak 1, larunbata, 19:45ean San Nikolas elizan (Algorta), David Abellán (bonbardino) eta Pedro Guallarekin (organoa). Antolatzailea: "Amigos del órgano Merklin de S.N. de Bari".

A-GENDA

Kontzertua. maiatzak 8, larunbata, 19:00etan, Muxikebarrin, "Raíces", Isabel Villanueva (biola) eta Moisés Sánchezekin (pianoa). Sarrera: 10€

Urbe Kosta eskualdeko Ertzaintzaren eta udaltzaingoen Koordinazio Batzordearen balantzearen arabera

Getxoko barrutiak delitu-tasa baxua mantendu du, %28,51 mila biztanleko 2020an, Covid eta osasun-alertako neurrien urtean

Getxoko Ertzain-etxeak, Urbe Kosta eskualdera hedatutako polizia-eremuan, %1,75 murriztu zuen arau-hausteen eta delituen urteko tasa; izan ere, 2019ko %29,01etik 2020ko %28,51ra jeitsi zen mila biztanleko tasa. Orokorrean gertatu den bezala, iaz ondarearen eta pertsonen aurkako delitu estrategikoek behera egin zuten. Gorakadarik nabarmenena Internet bidez egindako iruzurren delituei dagokie.

Martxoaren 31n, Urbe Kostako udaltzaingoen eta Getxoko Ertzaintzaren Eskualdeko Koordinazio Batzordea bildu zen. Bertan izan ziren Urbe Kostako alkateak, Ertzaintzaren eta Getxo, Berango, Sopela, Plentzia eta Gorlizko udaltzaingoen buruzagitzak eta ardura-dunak.

Iazko datu estatistikoetan eragina izan zuten COVID-19 delakoaren harira osasun-araudiaren ondorioz hartutako neurriek, konfinamendua aldia eta mugikortasun-murrizketak barne. Oro har, mila biztanleko kriminalitate-tasa zertxobait jaitسي da (%1,75).



Delitu estrategikoak Getxoko ertzain-etxean

Oro har, behera egin dute ondarearen aurkako delituek, besteak beste, %25,75 gutxiago indarkeriaz edo larderiez egindako lapurretek, eta behera egin dute etxebizitzetan indarrez egindako lapurretek; Getxon, adibidez, %60 egin dute behera, eta pixka bat igo dira eraikinen eranskinetan, trastelekuetan eta antzekoetan egindako lapurretak. Aldiz,

Internet bidez egindako iruzurren salaketek nabarmen egin zuten gora, sareko transakzio eta erosketen gorakadaren ondorioz.

Batzordean aztertutako datuen artean, sexu-erasoaren delituek behera egin zuten eta emakumeen aurkako indarkeriaren ondoriozko biktimizazioen kasuak ere murriztu egin ziren aurreko urtekoarekin alderatuta. Laurtekoko daturik onena da, egun-goa EBA (Etxekoen eta Emakumeen

Babesa) proiektuaren barruan, zeinak Ertzaintzaren eta udaltzaingoen artean genero-indarkeriari buruzko datuak partekatzeko eta hobeto kudeatzeko aukera ematen duen tresna informatikoa baitu.

2020rako ekintza-plan bateratuek lankidetzari hori azpimarratu zuten zaintza-dispositiboetan, oinezko patruila bateratuen gehikuntzan, "jaiak ez direnak" deitutakoen kontrolan, parkeetan, berdeguneetan, trafiko-kontrolan eta metro-geltokietan. Plan horiek une bakoitzean indarrean zegoen araudia betetzera egokitu ziren, pandemiari eusteko arriskua eragin zezaketen pertsona-kontzentrazioak saihesteko.

Estrategia bateratua

Ertzaintzaren eta udaltzaingoen estrategia udalerrietako patruilen lana indartzen jarraitzea da, bai autoz, bai oinez, herritarren segurtasun-pertzepzioa handitzeko eta herritarrek segurtasunaren arloan dituzten beharrei erantzuteko, bai eta giza baliabideak eta baliabide materialak hobeto aprobetxatzeko ere.

ETSk Neguriko geltokiko eraikin zaharraren zaharberritzea lizitatu du

Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailaren ETS-Euskal Trenbide Sareak, Neguriko geltokiko eraikin zaharra osorik birgaitzeko lanak egingo ditu datozen hilabeteetan. Higiezina eraberritzeak 244.153 oinarrizko lizitazio-aurrekontua du eta egikaritze-epea 6 hilabetekoa da. Udal-plangintzaren barruan babes-maila ertaina du eraikinak eta Getxoko Eremu Berezituaren Monumentu-multzoaren barruan dago. Eraikina zaharberritzean, haren tipologia-, forma- eta egitura-elementuak errespetatuko dira, estalkiaren posizioa aldatu barik, eta jatorrizko estaldura berrezarritik. Jatorrizko eraikinaren parte



ez ziren bi gorputz erantsiak eraitsiko dira eta egitura ere kenduko da, zurezko berri bat egiteko, itxu-

ra aldatu gabe. Estalkiaren tapa egiteko, lehendik dagoenaren antzeko zeramikazko teila erabiliko

da; fatxada guztiak pikatuko dira zarpiatu hidrofugoa egiteko eta bistako zeramikazko elementuak saneatuko dira. Kanpoko sarbideak, eskailera finkoen eta arrapala baten bidez egingo dira (irigarritasunari buruzko arautegia betetzeko). Estilo neo-euskalduneko, joan den mendearren hasieran eraiki zen, Ferrocarriles Vascos konpainiaren San Nikolas-Plentzia linearen inaugurazioarekin batera. Gaur egun, ez du trenbide garraioarekin inolako loturarik eta duela urte batzuk arte, beheko solairua estanko gisa eta egunkariak saltzeko erabili izan du familia-entrepresa batek.



APIRILAK 29 OSTEGUNA

Zinemabarri. Muxikebarrin (Areeta aretoa), 18:00etan, Maren Aderen "Toni Erdmann" luzemetaia, jatorrizko bertsoan azpititulekin, eta foruma. 16 urtetik gora. Sarre- ra: 3,50€.

Urbe Kostako Irakurzaleen Txokoa. "Aro beilegia" (Lizar Be- goña), 19:30ean, Azebarri Kultur Elkarte- an edo online, Egizuk antolatuta. Doan. Izenematea: labur.eus/irakurzaleak

APIRILAK 30 OSTIRALA

Antzerkia. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, Benetan Be- ren eskutik, "Porno versus Afro- dita (edo I love #gorkaurbizu)". Sarrera: 12€.

Zine-kluba. Romo Kultur Etxean, 18:00etan, Akira Kurosawaren "Dersus Uzala" filmaren proiekt- zioa eta foruma. Adin guztientzat. Sarrera: 3,50€.

MAIATZAK 1 LARUNBATA

Hip Hop ikuskizuna. Muxikeba- rrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Urban show" ikuskizuna, Invert, Shintoma, Minimi, Crazy Hospital eta DJ Rasyrekin. Sarrera: 8€.

Kontzertua. Algortako San Nikolas elizan, 19:45ean, David Abellánek (bonbardino) eta Pedro Guallarekin (organo). Antolatzailea: "Amigos del órgano Merklin de S.N. de Bari".

Ingurumen Aretoa. 10:00-14:00. Orientazio-jarduer berria + altxo- rren bila (8 urtetik gora). www.ingurumenaretoagetxo.eus

MAIATZAK 2 IGANDEA

Zinemaxiki. Muxikebarrin (Areeta aretoa), 12:00etan, "Asto erre- gea". Adin guztientzat. 2,50€.

Igandeko haur zinea. Areeta- ko Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Dragoiaren gidaria". Euskaraz. Adin guztiak. 2,50€.

Ingurumen Aretoa. 10:30-10:00 eta 12:00-13:30. Landareen inda- rra: inguruko sendabelar, aroma- tiko eta sukaldaritzako landareak ezagutzeko ekintza autogidatua (3 urtetik gora). www.ingurumenare- toagetxo.eus

MAIATZAK 3 ASTELEHENA

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Bertokoak" (argazkiak), Zabal- keta GGKE eta Ongi Etorri Erre- fuxiatuak Sestaoko Asanbladaren eskutik, Eusko Jaurlaritzako Bikti- men eta Giza Eskubideen Zuzen- daritzaren babesarekin. Maiatza- ren 30era arte.

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, "El proceso de Burgos: La rebelión vasca sigue adelante" (argazkiak), Abian Kultur Elkarte- ren eskutik. Maiatzaren 20ra arte.

MAIATZAK 6 OSTEGUNA

Zinemabarri. Muxikebarrin (Areeta aretoa), 18:00etan, Tamara Kotevska eta Ljubomir Ste- fanoven "Honeyland" luzemetaia jatorrizko azpitituludun bertsoan eta foruma. 12 urtetik gora. Sa- rre- ra: 3,50€.

MAIATZAK 7 OSTIRALA

Zine-kluba. Romo Kultur Etxean, 18:00etan, Kantemir Balago- ven "Una gran mujer" filmaren proiektzioa eta foruma. 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

Biolin eta piano errezitaldia. Areetako Andres Isasi Musika Es- kolan, 19:00etan, Mariana Blan- co eta Iñigo Iñurrietaren eskutik. Doako sarrera edukiera bete arte.

MAIATZAK 8 LARUNBATA

M4. Musika-zikloa Musikeneko masterraren ikasleen eskutik. Muxikebarrin, 12:00etan, Emma Benchikh (saxoa) eta Juan Matías Cuartas (akordeoia). Sarrera: 3€.

Kontzertua. Muxikebarrin (Ereaga aretoa), 19:00etan, "Raíces", Isabel Villanueva (biola) eta Moisés Sánchezen (pianoa) esku- tik. Sarrera: 10€.

Ingurumen Aretoa. 10:00-14:00. Bolueko esploratzaileak berezia (9 urtetik gora). Hezegu- neko hegaztiak. www.ingurume- naretoagetxo.eus

EZEZTATUTA "Pentagramako bertsoak". Topaketa poetikoa, musikala, antzerkikoa eta didaktikoa Areetako Andres Isasi Musika Eskolan, 19:30ean.

MAIATZAK 9 IGANDEA

Zinemaxiki. Muxikebarrin (Areeta aretoa), 12:00etan, "¡Uups 2! ¿Y ahora dónde está Noé?". Adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Ingurumen Aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Txiki tailerra: Egin ezazu hegaztia pinaburu ba- tekin (5 urtetik gora). www.ingu- rumenaretoagetxo.eus

Esklusio-egoerak prebenitzeko eta artatzeko gizarte diru-laguntzak

Udalak esklusio-egoerak prebenitzeko eta artatzeko, eta pertsonen eta familien gizarteratzea sustatzeko, udal gizarte diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartu ditu. Udalaren Laguntzak aldizkako ez diren pre- stazio ekonomiko hauen barruan daude COVIDak eragindako gastuei aurre egiteko laguntzak, ekono- mia zaugarrienak arris- kuan jar ditzaketenak. Uda- lak une honetan 180.000€ onartu ditu, eta aurreran- tzean *Getxo Ekinez* Planaren diru gehiago bideratuko du, behar guztiei erantzuna emateko.

Laguntzak etxebizitzari lotutako beharretarako, lan- eratzea eta gizarteratzea



bultzatzeko eta beste mota bateko laguntzetarako dira, tartean COVIDak eraginda- ko gastuetarako. Prestazio hauek eskatu ahal izateko, balorazio profesio- nala behar da, COVIDak eragindako gastuen kon- tzeptuari dagozkionetara-

ko izan ezik. Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 10era egongo da zabalik eta COVIDek eragindako gastuengatik maiatzaren 24tik aipatuta- ko datara arte da. Eskaerak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan entregatu behar- ko dira, eta COVIDagatik eragindakoak herritarrei arreta emateko edozein bulegotan ere, aurretiko hitzorduarekin. Hori tele- fonoz eskatzeko zenbakiak dira 944660153 Romo-Aree- tako Oinarrizko Gizarte Zerbitzurako, 944660101 Algor- ta- Negurirako, 944660130 Getxo-Andra Marirako eta 9446620099 Herritarren Arretarako Bu- legoetarako.

COVIDaren kontrako txertorako online bidezko hitzordua lortzeko zerbitzua

RKE-Romo Kultur Etxean abian dagoen Getxo Lagun- koia programaren Dinami- zazio Zerbitzuak COVIDaren kontrako txertorako hitzor- dua online kudeatzea aukera- tzen duten 60 urtetik gorako pertsonen, nahi izatekotan, laguntza eskainiko die, Osa- kideztaren SMS-en bidezko mezua jaso ondoren. Lagun- tza hori behar duten auzoki- de guztien eskura dago, Ge- txo Lagunkoien jardueren erabiltzailea izanda edo ez, eta horretarako Romo Kultur Etxeko hirugarren solairura hurbildu ahal izango dira,

eta une horretan bertan da- goen langileak lagunduko dio txertoa hartzea joateko hitzordua lortzera. Aipatutako tramitea egi- teko laguntza jasotzeko ordutegia da astelehenetik ostiralera 9:15etik 13:45era, eta astelehenetik ostegu- nera 16:00etatik 18:30era. Osakidetzaren mezua as- teburuetan jasotzen dute- nak hurrengo asteko lane- gunetan joan ahal izango dira, aipatutako hitzordua zehazteko, epe mugarik ez baitago. Jarduera hori Osakidetzak COVIDaren

kontrako txertoak jartze- ko prozesua bideratzeko eta errazteko prozesua- ri gehitzen zaio. Osaki- detza txertoak jartzeko gune handien erabilpena bultzatzen ari da, eta ho- rrek, unea iristen denean, aukera emango du Udalak jarritako karpak berresku- ratzeko herritarren goza- menerako. Karpak behin betiko ix- ten direnean jakinaraziko zaie herritarrei; bitartean, pertsona bakoitzak bere hitzorduan agertzen den to- kira joan beharko du.

100 urteko bi pertsona omenduta, apirilean

Udalak hilabete honetan Tomás Velasco Sobradillo eta Maura García Montiel omen- du ditu apirilean 100 urte bete izanaren ospakizuna dela eta. Horregatik, Udalak Aixerrotako errotaren erre- produkzio bat eta lore sorta bat bidali dizkie aipatutako auzokideei, Amaia Agirre alkatearen eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinego- tziaren gutun batekin batera. Horretan esaten diete "ehun urtetik gorako pertsonak gure iraganeko eta gaur egungo ga- raiko oroimen bizia ordezkatzeko dute, eta balio handiko giza on- darea dira".

Europaren Eguna dela eta Iraunkortasunari buruzko eztabaida online

Europaren Eguna dela eta, *Europa Iraunkor* eta *Etorkizu- neko baten alde* izenburupean, eCivis elkarte getxotarrak online bidezko eztabaida an- tolatu du, maiatzaren 3tik 6ra bitartean, Jitsi plataformaren bidez. Topaketak Europako Parlamentuko Babesle Gore- naren babesa jaso du aurten ere, eta iraunkortasunaren gaia hainbat ikuspegititik jorratuko du. Horretarako,

erakundeetako ordezkari- ke parte hartuko dute, bai eta enpresaren eta gizarte zibi- laren arloetako ordezkari- ke ere. Programak lau saio izan- go ditu, maiatzaren 3an, 4an, 5ean eta 6an, 18:00etan. Izan-ematea doakoa da, eta izena ematea gomendatzen da [https://getxoeuropa2021. eventbrite.es](https://getxoeuropa2021.eventbrite.es) helbidean; ber- tatik, online eztabaidarako aretoaren estekara sartu ahal izango da eta saio bakoitzeko partaideen egitaraua dago. Informazio gehiago izateko eCivisen 620237036 telefono zenbakira eta info@ecivis.eus posta elektronikora jo daite- ke. Izenemateak ere jasoko dira.



- **Errentan emateko** Abra 4 eraikinean 7 m2-ko departamentua. 85€ hilabetean. Tel.: 94 602 07 42.

- **Berreskuratu** zure argazkiak, bideoak eta familiaren pelikulak. Pasatu DVD formator. Tel.: 630 26 58 75.

- **Errentan** ematen dira lursailak ortu ludikoentzat, Larrañazubín. Tel.: 675 72 11 11.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia eragizko- tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF > Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizi- tzari lotutako albisteak eta informazioak ager- tzen dira astero. Komunikazioko zinegotzia: Ainhoa Galduroz Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguiar. Erredakzioa: Nekane Ardanza,

Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel.:94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Bostnan Bilbao, S.L. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Lantegi Batuak Fundazioaren egunOn zerbitzua Gordailu legala: BI-388-87

Bi saio kultur elkarteentzako ohiko diru-laguntzen deialdia azaltzeko

Maiatzaren 16ra arte zabalik egongo da Udalak bertoko kultura-elkarteei urtero ematen dizkien ohiko-diru-laguntzak aurkezteko deialdia.

Diru-laguntza horien helburua irabazi-asmorik gabeko erakunde horien funtzionamendua eta ohiko berezitasunek eragindako gastuak finantzatzen laguntzea da. Deialdi horren nondik norakoak azaltzeko eta kolektibo eskatzaileek izan ditzaketan zalantzak argitzeko, Kultur Etxeak bi saio antolatuko ditu, maiatzaren 3an eta 6an. Irantzu Uriarte Kultur Etxeko presidentek eta erakundeko teknikariek parte hartuko dute saio horietan. Lehenengoa Algortako Kultura Exean izango da, gaztelaniaz, eta, bigarrena, berriz, euskaraz, Romo Kultur Etxean.

Biak 18:30ean izango dira. Kultur Etxeak kultur elkarteei bertaratzeko gonbidapena luzatu die eta, horietara joan ahal izateko, interesdunek 94 466 01 23 - 94 466 00 22 telefonoen eta kulturetxea@getxo.eus posta elektronikoen bidez aurretik baieztatu beharko dute bertaratu direla.

Osasun-egoera dela eta, aretoan edukiera mugatu da eta elkarte bakoitzeko ordezkari bakarra joan ahal izango da. Bileretan emandako azalpenen dokumentazioa Kultur Etxearen webgunean izango da eskura maiatzaren 7tik aurrera.



Hip-Hop “Urban Show Basque Crew Combination”, Muxikebarrin

Larunbatean, maiatzaren 1ean, 19:00etan, Muxikebarriko Ereaga aretoan Hip-Hop taldearen *Urban Show Basque Crew Combination* ikuskizuna izango da. Bertan, Invert eta Shintoma (MC Freestyle) raperoek, Minimi (Beatbox) abeslariak, Crazy Hospitaleko dantzariak (breakdance) eta DJ Rasy (Deejay & Turntablism) hartuko dute parte. Sarreraren prezioa 8 eurokoa da.

12 urtetik gorako gazteentzat pentsatua, ikuskizun honek Hip-Hop mugimenduari eta kulturari lotutako hainbat diziplina artistiko ikusarazi nahi ditu, ekitaldi batean elkartuz. Horretarako, euskal eszenako diziplina anitzeko artistak bilduko ditu, modalitate bakoitzean dauden trebetasunak eta teknikak erakusteko eta, aldi berean, hizkuntza, sexu, arraza edo genero mugarik gabeko kul-

tura sustatzeko.

Hip Hop XX. mendeko 70eko hamarkadan New Yorkeko auzo marginaletan jaiotako mugimendu kultural bat da. Lau diziplina artistiko nagusi ditu: Rap (errezitatu edo abestu), Turntablism edo "DJing" (Deejay), Breakdance (dantza) eta

Graffiti (pintura). Horietaz gain, azpigenere ezberdinak ere agertu dira, beatbox adibidez, Hip-Hop kulturatik jaio arren, euren bide propioa egiten joan direnak. Sarre-rak Kutxabaneko kutxazainetan, Muxikebarrin eta Romo Kultur Etxean eros daitezke.

Olga Gonzalezen akuarelak Algortan

Euskal Akuarelisten Elkarteko kide den Olga González Rodríguez *Luga*-ren erakusketa izango da maiatzaren amaierara arte Algortako Batzoki tabernan. Erakusketak tamaina ertaineko 10 akuarela biltzen ditu *Les Muses* lelopean eta margolari ezagunen musei buruz hitz egiten du. Egunero bisitatu ahal izango da, 08:00etatik 20:00etara.



Abian ekimenak Burgosko prozesuari buruzko erakusketa antolatu du

Abian Kultur Elkarteak *El proceso de Burgos: la rebelión vasca sigue adelante* argazki erakusketa antolatu du Algortako Kultur Etxean. Elkartearen aburuz "bizi nahia eta herri honen ausardia auzitegi-tara eraman zituzten; 16 gazte herri baten aurrean, epaile militarrei aurre egin behar zien gazte ameslari baten aurrean". Maiatzaren 3tik 20ra zabalik, bi hitzaldirekin batera, 18:30ean: hilak 5, *El proceso de Burgos, 50 años después*, Iñaki Egañarekin, eta hilak 19, *Burgos atzo eta gaur*, Paco Letamendia Ortzi-ren eta Andoni Olariagaren eskutik (Iratzar Fundazioa).



“Bertokoak” argazki erakusketa RKEn

Romo Kultur Etxea-RKEk *Bertokoak* erakusketa hartuko du maiatzaren 3tik 30era, Zabalketa GGKEak eta Ongi Etorri Errefuxiatuak Sestaoko Asanbladak koordinatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak lagunduta. Hainbat emakumeren argazkiak, alde batetik, euskal udalerrietan dagoen errealitate multikulturala islatzen saiatzen direnak eta, bestetik, zaurgarritasun-egoeran dauden emakumeen erresilientzia- eta gaitzitate-gaitasuna, ikuspegi positibotik, bizikidetzaren eta kulturen arteko harremanen alderdiak nabarmenduta.



Duela bi hilabetetik hona, arrain- eta haragi-hondarrak bota daitezke, inausketa-hondarrei eta ohiko gainerako produktuei gehituta

Herritarrak edukiontzi marroia erabiltzera eta materia organikoa birziklatzera animatzeko kanpaina

Udalak kanpaina bat hasi du herritarrak edukiontzi marroia erabiltzera eta materia organikoa birziklatzera animatzeko, ingurumenari dakarzkieten onura guztiengatik.

Foru Aldundiak duela bi hilabetetik hona edukiontzi horretan haragi- eta arrain-hondarrak uzteko aukera ematen duela aprobetxatuz, Udalak informazio-orri bat jarriko du udalerriko atari guztietan. Orri horretan, honako hauek gogoraraziko dira: zerbitzuan alta emateko modua, isuri daitezkeen hondakin-motak, landareentzako eta loreentzako poltsa konpostagarrien eta ongarrri-pakete txikien aldizkako oparia, eta lorezaintzako mantentze-lanak edo berdeguneak dituzten auzo-komunitateek edukiontzi marroiaren erabilerarako txartela eskatu ahal izango dutela, inauske-hondarrak botatzeko.

"Orain gertuago gaude 2022rako jatorrian %50eko bilketara iristeko erronkatik; izan ere, duela gutxi, Foru Aldundiak haragi eta arrain hondakin gordinak eta kozinatuak edukiontzi marroian onartzea erabaki du. Horretarako, beharrezkoa da getxotarren lankidetzaren eta herritarrak eta erakundeak materia organikoaren birziklapenean inplikatzeko kanpainak egitea, jatorrian hautatutako hondakinak herritarrengana itzultzen diren baliabideetara igarotzean ematen dituen onurengatik, adibidez, landare eta loreentzako konposta edo ongarrria", adierazi du Joseba Arregi Ingurumen Kalitateko zinegotziak.



Zer birziklatu eta nola alta eman

Edukiontzi marroian, animalia-jatorriko hondarrez gain (haragi, hestebeteak, arrain eta itsaskiak, arrautzak eta horien oskolak, hezurak eta gazta), kozinatuak edo gordinak, honako hondakin hauek ere bota daitezke: begetalak (fruituen hondar eta hezurak, ortuariak, lekaleak, barazkiak, pastak eta arrozak, haziak, fruitu lehorrak eta horien oskolak, zerealak), kozinatuak edo gordinak; loreak eta landareak, belarra eta inauske-hondarrak, ogia, gailetak eta opilak, sukaldeko papeira, paperezko ezpainzapiak eta mahai-zapiak, kafe-poso eta iragazkiak, txikoria, infusio-

poltsatxoak, kortxo naturaleko tapoiak, kartoizko arrautza-ontziak eta kartoizko ondulatu zikina (guztiak materia organikoz bustiak), brotxetarako edo beste elikagai batzuetarako zotzak, izozki-makilak eta antzekoak, algak, alpisteak, gozokiak, irina, marmelada edo poltsa, ontzi eta tresna konpostagarriak.

Gainera, aipatu bezala, organikoa banatzen duten edukiontzi marroia erabiltzen duten pertsonak, 17 astean behin, 37 poltsa konpostagarri eta lore eta landareentzako ongarriontziki txikiak eskuratu ditzakete dohainik, Algortako Urgull kaleko udal-bulegoetan, Romo Kultur Etxean eta Fadura eta

Gobela kiroldegietako hallean jarritako lau makinetan.

Interesatuak alta eman dezakete zerbitzuan eta edukiontzi irekitzeko txartela eska dezakete www.getxo.info-citi.es web orrian. Baita Algortako (Torre-kalea 3) eta Areeta-Romoko (Las Mercedes kalea 13) Herritarren Arretarako Bulegoetan ere, non ongietorri-kita (aireztatutako edo zulatutako kuboa etxean erabiltzeko, poltsen biribilki bat eta zer hondakin birzikla daitezkeen azaltzen duen iman bat) jasoko duten. Zerbitzuari buruzko informazio gehiago edo zalantzak argitzeko 94 464 43 80 telefono zenbakira edo getxo@getxoR2022.com posta elektronikora jo.

KIROLAK



Regata a la Inversa-BBVA estropada, maiatzaren 1ean

Duela urtebete pandemiagatik bertan behera utzi ondoren, Regata a la Inversa-BBVA izeneko estropada Abrako uretara itzuliko da, duela 30 urte baino gehiagotik maiatzaren lehenan egiten duen bezala. Kantauri itsasoko klasikoetako bat da, eta bizkaitar estropadalariek proba historiko honetan parte hartzeko gehien espero duten jardunaldietako bat. 50 ontzi inguru (300 tripulatuak) egongo dira irteera lerroan, larunbat honetan, maiatzak 1, 13:45etik aurrera, Regata, Crucero eta J80 monotipoak klaseetan.

Baimenik gabeko kickboxing lehiaketa bat antolatzeagatik

Getxo Kirolak-ek Boxeo Izarrak kluba zigortuko du

Getxo Kirolak-ek Boxeo Izarrak kluba zigortuko du apirilaren 17an, larunbatean, Fadurako kiroldegian lehiaketa bat antolatzeagatik, udal erakundearen eta Bizkaiko Boxeo Federazioaren baimenik gabe eta horren berri eman gabe. Zerbitzu juridikoek zehapenaren irismena zehaztu bitartean, klubari debekatu egin zaio udaleko kirol-instalazioetan lehia-jarduerarik antolatzea. Pandemiaren ondorioek eragindako egoera larria dela eta, Getxo Kirolak-ek uste du onartezina dela klubak entrenamenduetarako ematen zaizkion orduak aprobetxatzea lehiaketa bat antolatzekeko beharrezko osasun-protokoloak errespetatu gabe.



Euskadiko 2. mailako Atletismo Txapelketa

Atlético Getxo Klubeko gizonen taldeak 2. mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen eta emakumezkoen taldea, berriz, hirugarren tokian sailkatu zen. Euskadiko Atletismo Federazioak antolatu zuen lehiaketa, Atlético-Getxo Klubaren eta Getxo Kirolak-ekin laguntzarekin, eta joan den asteburuan jokatu zen Faduran; jautziketa, jaurtiketa eta lasterketa proba guztiak hartu zituen barne. Emaizta horiekin, gizonen talde getxotarra 2022an Euskadiko maila nagusiko Txapelketan lehiatuko da.